BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4569

AGINDUA, 2014ko urriaren 27koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskadiko Ondare Arkitektoniko Monumentalaren Aholku Batzordeko zenbait bokalen kargu-uztea formalizatzeko, bokal berriak izendatzeko eta Batzordearen osaera zehazteko dena.

Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 6. artikuluan xedatzen duenaren arabera, bertan arautzen diren arloei buruzko aholkua emateko behar diren organo aholku-emaileak sortu ahal izango ditu Eusko Jaurlaritzak.

Ondorioz, 1990eko urriaren 23ko 284/1990 Dekretuaren bidez, Euskadiko Ondare Arkitektoniko Monumentalaren Aholku Batzordea sortzea eta horren egitura eta funtzionamendua finkatzea erabaki zen. Aipatu Dekretuaren 2.c) artikuluaren arabera, hauek izango dira Batzordeko kideak: hiru Foru Aldundietako ordezkariak, bakoitzetik bat, eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzak izendatutakoak, gutxienez hiru eta gehienez zortzi.

Eta Dekretuaren 3.1 artikuluarekin bat etorriz, batzorde horretako bokalen karguaren iraupena bi urtekoa izango da.

Bokalak azkenekoz izendatu zirenetik (Kulturako sailburuaren 2012ko martxoaren 1eko Aginduan), aurreko lerroaldean aipaturiko epea igaro denez, aurkeztu diren proposamenak ikusita eta urriaren 23ko 284/1990 Dekretuko 2.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Ondare Arkitektoniko Monumentalaren Aholku Batzordeko bokal hauen kargu-uztea formalizatzea, horretarako ezarritako epea iragan izanagatik:

– Javier Olmeda Almendros jauna, Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria,

– Andoni Iturbe Amorebieta jauna, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria,

– M.ª Pilar Azurmendi Etxegarai andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria,

– Francisco de León Molina jauna,

– Agustín Azkarate Garai-Olaun jauna,

– Juan Ramón Lombera García jauna,

– Juan Ignacio Lasagabaster Gómez jauna,

– José María Cazalis Eiguren jauna, eta

– Alfonso Sanz Araujo jauna, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak izendatua.

Bigarrena.– Euskadiko Ondare Arkitektoniko Monumentalaren Aholku Batzordeko bokal honako pertsona hauek izendatzea:

– Juan Ignacio Lasagabaster Gómez jauna, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari gisa eta hark proposatua.

– Andoni Iturbe Amorebieta jauna, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari gisa eta hark proposatua.

– Josu Maroto Peñagaritano jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa eta hark proposatua.

– Aitor Kerejeta Cid jauna,

– Francisco de León Molina jauna,

– Agustín Azkarate Garai-Olaun jauna,

– Juan Ramón Lombera García jauna, eta

– Elena Lete García andrea, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak proposatua.

Hirugarrena.– Euskadiko Ondare Arkitektoniko Monumentalaren Aholku Batzordea zortzi (8) bokalek osatuko dute, horietako bost (5) Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak izendatuko ditu. Horrek ez du esan nahi, ordea, gehiengora iristeko falta direnak gerora izendatuko ez dituenik.

Laugarrena.– Interesdun guztiei honen berri ematea eta agindu hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratzea, herritar orok ezagut dezan.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 27a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.